



five!

103.
zenbakia
2007ko
iraila

HELBIDEA:
Ametzagaña 19
Behesolairua,
DONOSTIA 20.012
Tlf: 943 27 55 61
e-posta:
joxemi@joxemi.org

KOORDINAZIOA ETA
MAKETAZIOA:
Iñaki Esnaola

Txubillo inprimategian egina.
SS-463/97

ASTRA: GAZTE MUGIMENDUAREN EREDU



Azken urteetan okupazioak gora egin du nabarmen Euskal Herrian. Honelako ekimenak, gazteen eskutik hein handi batean, historian zehar ohikoak izan arren, azken boladan indarra hartu dutela dirudi. Konpromisoa handitu egin da auto-gestioaren alde egiteko eta hori egunerokotasunean ikus daiteke zazpi probintzietan ematen diren okupazioekin. Iruñeako Euskal Jai Gaztetxearen hustutze eta eraisketaren ondoren koka genezake gaztetxe berri eta okupazio saiakeren azken loraldia; nolabait esatearren. Proiektu guztiak ilusio berberarekin abiatu baziren ere, hainbat bidean geratu dira. Besteak beste, Donostiako Ametsenea gaztetxea. Badira kolokan ere badaudenak. Esaterako, Donostiako Loiola auzoko gaztetxea (abuztuaren 2an Udaltzaingoek prezintatu zuten) zein Intxaurrendoko Letaman eta Bilboko Alde Zaharreko 7 Katu. Nolanahi ere, badira beste zenbait proiektu aurrera egiteko aukera izan dutenak. Horien artean, esanguratsuen eta eredu gisa hartu beharrekoa da hurrengo lerroetan ezagutuko dugun Gernikako Astra Gaztetxea. Ieup Gazte

Asanbladak egindako lanari esker eta beste hainbat eragileren babesarik proiektu sendo eta itxaropentsu bat eraman dute aurrera. Aldi berean, agerian utzi dute planteamentu egoki eta antolaketa zuzen batekin honelako ekimenek aurrera egin dezaketela eta egin behar dutela. Baina Astra Gaztetxeko hainbat kiderekin izandako solasaldian barneratu aurretik, ondo legoke pixka bat bada ere Astra eraikinaren nondik norakoak ezagutzea. Baita larurbildu ere ekimen honek sortu zenetik izandako mugimendu guztiak. Ez baitira gutxi.

Astra eraikina, "Talleres de Guernica"-ren lehen pabiloia, 1916. urtean diseinatu eta eraiki zuen Ricardo de Bastida arkitekto bilbotarrak. Antza denez, eraikina Euskal Herriko zein Europako arkitektura aurre arrazionalaren harribitxietako bat da adituen ustez. Honez gain, Astrak badu bere historiari beste jazoera bat oraindik bereziagoa egiten duena. Hain zuzen ere, 1937ko apirilaren 26an Faxistek Gernika eraso, erre eta suntsitu zuten egunean Astra eta Talleres de Guernica izan ziren beste eraikin bakan

ASTRA: GAZTE MUGIMENDUAREN EREDU

batzuen artean zutik geratu zirenak. Beraz, eraikin honek duen ondare historikoa benetan garrantzitsua da.

XX. mendearen bukaera bitarte, Astra bi armagintza enpresen esku egon zen. Zehazki, Gandarias izeneko familiak Talleres de Guernica enpresa martxan jartzeko eraiki zuen. Bertan makina-erreminta, hegazkinentzako bonbak eta fusilentzako granadak egin zituzten. 1968tik aurrera, berriz, pistolen fabrika bihurtu zen Astra Unceta y Cia-k enpresa erosi zuenean. Hogeita hamar urte pasa ondoren, 1998an enpresak kiebra jo eta lantegiak ateak itxi zituen. Honela, 82 urtez suzko armen fabrika izan zen Astra. Enpresa itxi eta zazpi urtetara, 2005eko abenduaren 24an Gernikako zenbait gaztek eraikina okupatu zuten lehenengo aldiz eta gaur arte.

Hona hemen jarraian, Ieup Gazte Asanbladakoekin izandako hizketaldia:

Labur bada ere saiatu gogoratzen 2005eko abenduaren 24ko goiz hura. Okupazioaren eguna. Deskribatu gertatu zena?

Asanbladan Abenduaren 23an berretsiko asmoa aurrera eramaten da. Goizeko 8etan okupatzeko zena 5etara aurreratu genuen, herrian zabaldua baitzen okupatzekoak ginela. 3 talde desberdinetan banatu ginen, herriko leku desberdinetatik agertu eta 5etan puntuan Astra aurrean batu ginen. Birritan pentsatu gabe sartzen gara Astra barrura eta hortik aurrera, garbiketa, komunikazio eta txukuntze lanak hasten dira.

Okupatzeko asmoa aspalditik buruan zenuten Gernikako gazteek. Azkenean Ieup Gazte Asanbladak aurrera egin eta berak hartu zuen testigua azken pausua emateko. Nolako izan zen aurreko prozesua?

Gernikan gaztetxe baten beharra ikusten genuen, asanbladen bitartez Astrako eraikina ikusten zen horretarako espazio ideal bezala eta udaletxearen jarrera ikusi eta asanblada piloaren ostean okupazioaren beharra ikusi zen. Erabaki hauek asanblada jendetsuen bitartez erabaki ziren.

Behin okupatuta, Euskal Herrian gertatzen den bezala halako ekimenek sorturiko ilusio eta pozek erreprezioaren erantzuna jasotzen dute. Desalojoa iritsi zen, baina baita beste zenbait gauza ere. Kontatu hurrengo hilabeteetan gertatutakoa...

Okupazio eguneko goizean bertan Amenabar enpresako kide bat bertaratu zen, okupatu genuen eraikina beraien zela eta segituan husteko esaten. Okupatu eta 13 ordura Ertzainak etorri ziren brigada eta guzti, desalojorako Amenabar enpresaren salaketa faltsu batekin. Eraikina kiebra egoeran zegoen eta okupatu genuen eraikina ez zen Amenabar enpresarena. Ertzainak erabili zituzten (beraien konplizitatearekin) gu handik kanporatzeko eraikina

Amenabar enpresarena izan gabe. Desalojoa 13 ordura etorri zen, baina segituan ikusi genuen herrian babestuak sentitzen ginela. Hala ere lana baguenen, herriko talde sozial, kultural, nahiz norbanakoekin sare bat lortzea, Astraren okupazioaren arrazoiak azaldu eta denon artean lan egitea zen gure erronka. Sare hau lortzeak gerora asko lagundu digu.

Eta otsailaren 18an bigarren okupazioa egin eta gauza egonkortzen hasi zen. Gernika-Lumoko udalak Astra eraikina enkantean erosi eta bideak erraztu zituen. Gustura udalak hartutako erabakiaren?

Udalak hasieratik handik kanpora joateko eskatu zigun, bertan etorkizunik ez genuela esan eta inolako laguntzarik eskaini gabe. Hala eta guztiz ere, herrian komunikazio eta salaketa kanpaina baten ostean eta lehen aipatutako herri-sare horri esker, Udalaren aldetik ez zuten beste alternatibarik, enkantean erostea baino. Aurtengo hauteskundeen mamua ere bazuten, Astraren gaia pil-pilean zen eta ez zitzairen komeni Astraren inguruan sortutako ekimenaren kontra joatea, horrela pentsatu arren.

Kontuak kontu, Astra eraikinaren haritik "Astra Gernikentzako" egitasmoa eta "O Kilometroa" parte hartze prozesua etorri dira. Orain non kokatzen zarete,



A^ASTRA: GAZTE MUGIMENDUAREN EREDU

bideko zein puntuan?

Urte beteko prozesu parte hartzailearen ostean, orain bertatik irten den proiektuaren zirriborroa herriratzen ari gara. Prozesu honetan talde sozial, kultural eta norbanakoen artean Astrari emango zaion erabileraren proiektua aurrera eraman dugu, EHUko Parte Hartuz-eko kideen laguntzarekin. Administrazioari zera onartzea eskatzen zaio:

#Prozesu partehartzaile eta demokratikoa proiektu honen oinarria dela.

#Eraikinaren berriztapena Astra proiektua oinarri dela.

#Eraikinaren erabilera Astra koordinadorari eta erabiltzen duten elkarte eta pertsoneri zesioan emateko.

Eta orain zein urrats berri daude emateko?

Orain eraikinaren egoera aztertu eta ondoren beraren antolaketa bermatzea da, elkarte desberdinen egoera kontutan hartuz.

Bestalde, Astra okupatu zenutenetik urtebete pasa da. Hamaika ekimen izan dira urtebete honetan. Laburbildu apur bat lehen urte honetan bizitakoa?

Azken urte honetan gazteon artean elkar ezagutzea lortzeari garrantzia handia eman zaio eta norberaren interesak era kolektibo baten aurrera eramaten saiatu gara. Bertatik kolektibo desberdinak pasa dira eta herriko puntu dinamizatzaile bat izan da. Bertan kontzertu, jaialdi, hitzaldi, antzerki, emanaldi, bertso-saio, erakusketa, herri bazkari, salsa gau, rokodromo eta abar aurrera eramatea lortu da.

Jendearen erantzuna itzela izan da ezta?

Proiektu guztietan bezala, honek ere bere gorabeherak izan ditu, hasieran oihartzun izugarria izan zuen. Okupazioaren ilusioarekin jendetza bat biltzen ginen hasierako asanbladetan. Orain dena lasaitu denean asanbladetan agertzen garenak gutxiago izan arren, eraikinaren bizitza aurrera doa eta orain beraren erabiltzaileak gazte asanbladaz aparte beste batzuk ere badira.

Gainera jende arruntaren berotasunarekin batera beste hainbat pertsona ezagunek ere beren babesa eman diote Astra proiektuari, ezta?

Inguruko musikari, artista, kultura eta talde sozialek, norbanakoek eta aipatzekoa da Perez Esquivel Bake Nobel sariak babesa eman diotela.

Amaitze aldera, hurrengo hilabeteetan zein asmo dituzue Ieup! Gazte Asanbladatik eta orokorrean Astratik?

Astra proiektuan adostutakoa martxan jartzea eta aurrera eramatea izango da lehentasuna. Ieup! Gazte asanbladak hau babestu eta gazteoi zuzenean eragiten diguten arazoei aurre egin beharko die. "Gaztiak eñ enbideu!" leloa inoiz baino garrantzitsuago ikusten dugu. Erronka polita, gure ustez.

Okupazio eguneko komunikatua:

Astra gaztiontzako, kulturarako
Sorkuntzarako Astra danontzako
Gernikarrontzako.

Gure obraren aktore, gure ipuinen idazle, gure kantuen kantari eta egile izan gura dugulako hurbildu gara hona, Astrara.

"Ez da posible, ezin liteke" diotenen aurrean, "posible dela, izan daitekeela" diogulako gatoz, Astrara.

Astra publikoa izatea gura dugulako, eta ez gutxi batzuen negozioa. Gernika bizia eta koloretsua nahi dugulako gaude bertan. Gurelako gazteontzako bakarrik ez, hemen guztiontzako lekua dagoelako etorri gara hona. Osatu nahi dugun puzzle honetan, lehenengo piezak baino ez garelako heldu gara bertora, Astrara.

Kulturaren erreka bizietan urtegirik nahi ez dugulako gaude hemen, Astran. Sorkuntzaren tren honetan, bagoi txikiak, handiak, itsusiak, berdeak, zaharrak, urdinak, gazteak, ezjakinak eta jakitsuak nahi ditugulako etorri gara hona. Elkartzea eta konpartitzea hain zailak diruditen garaiotan, batu, konpartitu eta trukatu nahi dugulako gaude hemen, Astran. Udaleko proiektu, artxibo eta agintarien agendetan hotza, hotz handia egiten duelako etorri gara bertora, epeletara. Su-armen heriotza zegoen lekuan bizia sortzen hasi delako, gaude eta egongo gara hemen, Astran.

Belaunaldietan zehar, Gernikan faltan izan dugun errealtate bat eraikitzen ari garelako, EZ ZARRATU ZABALDUTAKO ATERIK, hemen guztiontzako lekua dagoelako.



ELKARTASUN BRIGADAK 2007



Elkartasun brigadek munduko txoko ezberdinak bisitatzen eta herrialde horietan lan egiten dihardute. Azken urteetako ohiturari jarraiki, Askapena, Euskadi-Cuba eta Komite Internazionalistak taldeak mundu mailan dabilta. Hain zuzen ere, 2007ko Brigadak ekainean hasi ziren Maputxeekin eta irailean bukatuko dira Ekuador eta Kunayalarekin. Bidean geratu dire beste hainbat herrialde. Hala nola, Palestina, Irlanda, Països Catalans, Argentina, Uruguay, Bolivia, Kolonbia, Kuba, Mexiko eta Venezuela. Bistakoa da, aurten ere brigadek herrien arteko elkartasunaren bidean urrats berri bat eman dute. Orain arte egin duten ibilbidea jasotzeko Askapena talde internazionalistak igorritako kroniketan kontaktzen dituzten esperientzien laburpena irakurri ahal izango duzue hurrengo lerroetan.

Brigadak mapucheen herrian

Ekainaren bukaera aldean Askapenako kideak Wall Mapun izan ziren mapuche herriarekin elkarlanerako bideak zabaltzen. Bertan, mapucheek bizi duten lurraren aldeko borroka, multinazionalen aurka, egoera errepresiboa eta hiri zein herrietako mapucheen arteko aldeetat jardun zuten brigadistek. Uztailean sartuta, Puelwillimapun mapucheen hego mendebaldeko lurrian, Askapenaren brigadak eta FMC erakundeak (Nekazari Borroka Fronte Mapucheak) antolatuta Epú Rupanekwun izeneko jardunaldiak edin zituzten hizkuntza berreskurapenaren inguruan. Bereziki bi hizkuntza izan ziren ardatz: mapudunguna eta euskara.

Mexikon ere lanean

Uztailak aurrera egiten zuen ahala, Mexikora joan zen Askapenako Brigadak ekimen ezberdinetan aritu zen. Lehenengo ekintza, bertako irrati libreen errealitatea ezagutzeko izan zen. Honela jakin izan zuten mugimendu

hauek gobernuaren aldetik zuten errepresioa nolakoa zen. Aldi berean, “La Otra” kanpaina ezagutu zuten. Guztiz anitza eta konplexua den Mexikoko ezker eta beheko mugimendu, irrati libre, kolektibo eta aberren topagunea. Honez gain, Atenco herrian ere izan ziren bertako borroka ezagutzeko. Guelaguetza Oaxacako jatorrizko herrien ospakizun handian ere parte hartu zuten gertutik polizi zein militarrek izan zuten erantzun errepresiboa.

Buenos Airesko brigadak

Uztailaren 18tik 21era bitartean, Hizkuntzen II. Nazioarteko Batzarra burutu zen Buenos Airesen eta bertan izan ziren Askapenako Brigadak. Foro honen helburua kultur-aniztasuna babestea zen eta bertan izan ziren Argentina, Brasil, Bolibia, Txile, Ekuador, Mexiko, Paraguai eta Euskal Herriko ordezkariak elkarlanean.

Ógra Shinn Féin eta Zapatistekin

Aurtengo Brigadetan kasik aldi berean munduaren bi mutur ezberdinetan izan zuen bere ordezkariak Askapenak. Batetik II. Herri Zapatisten eta Munduko Herrien arteko Topaketan izan ziren Zapatisten errealitatea ezagutzeko, eta bestetik Ógra Shinn Féin-ekoekin (Shinn Féin erakundearen talde gaztea) bildu ziren Irlandako Omagh. Bertan egin zituzten topaketetan desmilitarizazioaz aritu ziren.

Nolabait, haude izan da Askapena talde internazionalistak ordezkariak mundu zabalean egindako lanaren zati txiki bat. Momentu honetan, herrialde ezberdinetan jarraitzen dute herrien arteko elkartasuna sendotu eta aurrera begira lanean jarraitzeko.

Informazio gehiago: www.askapena.org

ZAHARRAK BERRI

AHT-AREN KONTRAKO AKANPADA



Urteroko zitari hutsik egin gabe, Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak XII. akanpada egin zuen uztailearen 27tik abuztuaren 5a bitarte Aramaioko Ibarra auzoan. Aldarrikapena oinarri ekimen ugari antolatu zituzten hamar egunetarako. Hala nola, tailerrak, Mendi martxak, Hitzaldi-Eztabaidak, Batzarrak, Haurrentzako jokoak, Antzerkiak, Kontzertuak, ... Finean, hamabigarren akanpada jai giro ederrean pasa zuten Aramaion.

ESKOLA IBILTARIA 2007



Uztailearen 12tik 14ra bitarte Ikasle Abertzaleak taldeak 2007ko Eskola Ibiltaria egin zuen Galdamesetik Santutxura. Beraien hitzetan, "Eskola Ibiltaria udan burutzen dugun ekimena da. Euskal ikasleriak nahi, behar eta aldarrikatzen duen eskola eredia praktikara eramaten dugu, hiru egun hauetan". Modu honetan, vekimen ezberdi-


nak antolatu eta gauzatu zituzten. Proiektua duela zortzi urte jarri zuten martxan eta azkena, Bizkaia aldean gauzatu zuten. Zehazki, Galdames eta Santutxu artean.

HARRESIAK BIRRINDU KARABANA

Uztailearen 20etik 27ra bitarte "Harresiak Birrindu!!!" leloarekin karabana solidario bat atera zen Euskal Herritik. Egitasmo honen xede nagusia gure gizartean dagoen kriminalizazio sozial eta politikoa eta munduan gero eta herri gehiagok pairatzen duten zapalkuntza salatzea izan zen. Honekin batera karabanak amaiera eman zion azken hilabeteetan egin den kanpainari. Hain zuzen, apirila eta maiatzean Iruñea, Gasteiz eta Bilbon jardunaldiak egin dira.

JAI HERRIKOEIN ALDE

Uztaila eta abuztuaren zehar Euskal Herria festa giroz jantzi eta jai ezberdinak parrandazaleen gida bihurtzen dira. Bi hilabete hauetan makina bat jai bizi izan ditugu gurean. Hiriburuetan, ordea, Jai Herrikoekin Aldeko apustuak aurrera egiten du. Iruñeako San Ferminetan, Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaian eta



Donostia zein Bilboko Aste Nagusietan. Hiri eredia baztertu eta jai herrikoekin aldeko ekimen ugari izan dira. Honela, Iruñeako Peñek, Gasteizko Blusak eta neskak, Donostiako Piratek eta Bilboko Konpartsek beste kolore bat eman diote aurten ere "hirietako" jaiei. Parte hartze herritarra helburu!

TAILERRAK 2.0




Udan izan ohi diren ikastaro, topaketa eta abarrak ikusita Bipuntuzero taldeko kideek Tailerrak 2.0 antolatzea erabaki zuten uztaila eta irailerako. Honela, 2.0 fenomenoaren inguruan biltzen diren tresna berriak (wikiak, blogak, podcasting, ...) erabiltzeko eta aldi

berean erabiliz trebatzeko tailerrak antolatu zituzten Bipuntuzero taldekoek. Tailerrak Euskal Herriko probintzia ezberdinetan izan ziren. Dena dela, azken tailer bat falta da iraillean izango dena. Iruñeara hurbiltzen direnek Bideogintza landuko dute. Informazio gehiago: <http://tailerrak.bipuntuzero.org>.

AMAIURKO GAZTELUKO GUDUA GOGOAN

Uztailearen 21ean, napor askatasunaren alde 1522. urtean Amaiurko etxarrian borroka egin zuten gizonak omentzeko Peio Iraizozen eskultura berria paratu zuten Obanosko infanzoiaren leloarekin "Aberri askearen alde, jendea libre jaiki", "Pro libertate patria, gens libera state". Larru gorriak gazteluko bidean bildu eta banderen artean omendu zituzten independentziaren aldeko borrokan bizia galdu zuten gudariak.



18/98+

ESKUBIDE ZIBIL ETA
POLITIKOEN DEFENTSAN

18/98+ BAT EGIN EGUNA, Irailaren 23 an Altsasun



bat egin eguna

eskubide zibil eta politikoen aldeko
elkartasun jaia

18/98+

IRAILAK 23 IGANDEA • SANPEDRO ZELAIETAN • ALTSASU-URDIAN

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-abizenak: Taldea:

Helbidea: Herria:

PK: e-posta: Tlf:

Buletina etxean doan jasotzeko, harpidetza txartela bete eta helbide honetara bidali: JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA, Ametzagaña 19, 20.012 DONOSTIA// Tlf: 943 27 55 61// Faxa: 943 32 06 93// e-posta: joxemi@joxemi.org